OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2018KO ABENDUAREN 20an EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO CELEBRADO EL 20 DE DICIEMBRE DE 2018.**

**Olaberrian, 2018ko abenduaren 20an, 13:10ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea den, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O) , Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Maider Agirre Mugika (O.E.O), Mikel Etxarri Juanes (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) eta Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) zinegotziak.**

**En Olaberria, a 20 de diciembre de 2018, siendo las 13:10 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O), y los concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Maider Agirre Mugika (O.E.O), Mikel Etxarri Juanes (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) e Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) .**

**Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.**

**Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.**

**Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.**

**Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.**

**AZPIEGITURAK ETA HIRIGINTZA**

**INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO**

**Gañera auzoko eskola zaharretan egingo diren 9 etxebizitzei etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa aitortzea.**

**Acordar la calificación provisional de viviendas tasadas de las 9 viviendas a ejecutar en las antiguas escuelas del barrio de Gañera.**

Gaia Udal-kideei azaldu zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

GOITU ERAIKUNTZAK, SL enpresaren

Se da cuenta de la solicitud formulada por

izenean eta hau ordezkatuz, Josu Arregui Ugarte jaunak egindako eskaeraren berri eman da. Olaberriko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren A.U.6 ESKOLA ZAHARRA deritzon lursailetako batean garatuko duen sustapenari dagokion Udalaren etxebizitza tasatuen kalifikazioa eskatu du. Zehatz-mehatz, kasurako deitutako eta 2018 urriaren 18an gindako Osoko Bilkuran Udalak hartutako erabakiaren bidez ebatzi zen lehiaketan udal-erakunde honek besterendu zion lursailean.

D. Josu Arregui Ugarte, actuando en nombre y representación de la mercantil GOITU ERAIKUNTZAK, S.L., que interesa la calificación de vivienda Tasadas Municipales de la promoción que va a desarrollar en una de las parcelas del A.U. 6 ESKOLA ZAHARRA del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Olaberria, en concreto en la parcela que le fue enajenada por esta Entidad Municipal en el concurso convocado al efecto y resuelto mediante acuerdo plenario adoptado en sesión celebrada el 18 de octubre de 2018.

Udal honek onartutako "*Olaberriako udalaren etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantzaren*" 10. artikuluaren arabera, kalifikazioa Udalbatzari ematea dagokio. Bertan hartutako erabakian, etxebizitza bakoitza eta eranskinak saltzeko gehieneko prezioa ezarriko da.

El artº 10 de la *" Ordenanza reguladora de las viviendas tasadas municipales de Olaberria "* aprobada por este Ayuntamiento, dispone que la calificación corresponde otorgarla al Pleno Municipal, en cuyo acuerdo se fijará el precio máximo de venta de cada vivienda y de los anexos.

Adierazitakoaren arabera, honako hau erabaki da aho-batez:

En consecuencia con lo expuesto, se acuerda por unanimidad :

Lehena.- Olaberriko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren A.U.6 ESKOLA ZAHARRA deritzon sailetako batean GOITU ERAIKUNTZAK, SL.k garatuko nahi duen bizitegi-sustapena erregimen bereziko etxebizitza tasatu gisa kalifikatzea.

Primero.- Otorgar la calificación de vivienda tasada de régimen especial a la promoción residencial que GOITU ERAIKUNTZAK, S.L., interesa desarrollar en una de las parcelas de la A.U. 6 ESKOLA ZAHARRA del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Olaberria.

Bigarrena.-Lehiaketarako aurkeztutako eskaintzaren arabera, elementu bakoitzaren salmenta-prezioak –BEZ gabe–, BOEren prezioari 1,08 modulua aplikatu ondoren aterako direnak izango dira:

Segundo.- Con arreglo a la oferta presentada a la licitación, los precios de venta de los distintos elementos – sin IVA- serán los que resulten de aplicar el módulo 1,08 al precio de la VPO, resultando los

siguientes :

| | TIPO/bloque | m²(u) Sup. Útil | m²(uc) Sup. Útil computable | Precio |
|---|---|---|---|---|
| VIVIENDA 1 | ESQUINA BLOQUE 1 | 83,31 | 89,90 | 138.258,84 |
| VIVIENDA 2 | CENTRAL BLOQUE 1 | 85,71 | 90,00 | 138.415,72 |
| VIVIENDA 3 | ESQUINA BLOQUE 1 | 83,31 | 89,90 | 138.258,84 |
| | | | | |
| VIVIENDA 4 | ESQUINA BLOQUE 2 | 83,31 | 89,90 | 138.258,84 |
| VIVIENDA 5 | CENTRAL BLOQUE 2 | 85,71 | 90,00 | 138.415,72 |
| VIVIENDA 6 | ESQUINA BLOQUE 2 | 83,31 | 89,90 | 138.258,84 |
| | | | | |
| VIVIENDA 7 | ESQUINA BLOQUE 3 | 83,31 | 89,90 | 138.258,84 |
| VIVIENDA 8 | CENTRAL BLOQUE 3 | 85,71 | 90,00 | 138.415,72 |
| VIVIENDA 9 | ESQUINA BLOQUE 3 | 83,31 | 89,90 | 138.258,84 |
| | | | | |
| GARAJE 1 | BLOQUE 2 | 28,61 | 28,61 | 12.320,23 |
| GARAJE 2 | BLOQUE 2 | 19,58 | 19,58 | 8.431,67 |
| GARAJE 3 | BLOQUE 2 | 19,58 | 19,58 | 8.431,67 |
| GARAJE 4 | BLOQUE 2 | 19,58 | 19,58 | 8.431,67 |
| GARAJE 5 | BLOQUE 2 | 19,58 | 19,58 | 8.431,67 |
| GARAJE 6 | BLOQUE 3 | 27,23 | 27,23 | 11.725,96 |
| GARAJE 7 | BLOQUE 3 | 20,50 | 20,50 | 8.827,85 |
| GARAJE 8 | BLOQUE 3 | 20,50 | 20,50 | 8.827,85 |
| GARAJE 9 | BLOQUE 3 | 20,50 | 20,50 | 8.827,85 |
| | | | | |
| TRASTERO 1 | BLOQUE 2 | 5,69 | 5,69 | 2.450,27 |
| TRASTERO 2 | BLOQUE 2 | 8,16 | 8,16 | 3.513,91 |
| TRASTERO 3 | BLOQUE 2 | 6,68 | 6,68 | 2.876,59 |
| TRASTERO 4 | BLOQUE 3 | 4,93 | 4,93 | 2.122,99 |
| TRASTERO 5 | BLOQUE 3 | 5,83 | 5,83 | 2.510,55 |
| TRASTERO 6 | BLOQUE 3 | 5,68 | 5,68 | 2.445,96 |
| TRASTERO 7 | BLOQUE 3 | 5,67 | 5,67 | 2.441,65 |
| TRASTERO 8 | BLOQUE 3 | 5,35 | 5,35 | 2.303,85 |
| TRASTERO 9 | BLOQUE 3 | 5,35 | 5,35 | 2.303,85 |

Hirugarrena.- Aurretik aipaturiko "Olaberriako udalaren etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantzaren" 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, lehen erabilerako baimena eman aurretik, behin betiko kalifikazioa eskuratu

Tercero.- Con arreglo a lo dispuesto en el precitado artº 10 de la *"Ordenanza reguladora de las viviendas tasadas municipales de Olaberria "*, para la concesión de la licencia de primera

beharko da, eta etxebizitzak eta gainerako elementuak behin-behineko kalifikazioaren zehaztapenen arabera gauzatu dituztela egiaztatu beharko dute.

utilización deberá obtenerse previamente la calificación definitiva, debiendo acreditarse que las viviendas y demás elementos se han ejecutado con arreglo a las determinaciones de la calificación provisional.

## OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

## HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

### 3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena

### Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.

Aurreko batzorde informatzailera eraman ez den ondorengo faktura hau aurkezten zaio Osoko Bilkurari:

Se presenta al Pleno la siguiente factura que no ha sido informada en previa comisión informativa:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 4 | INDENORT PV S.L. | B01482587 | FRA. 129 | 157.300,00 € |

Alkateak, idazkari-kontuhartzaileari hitza ematen dio, honako hau azaltzen duelarik:

El Alcalde cede la palabra a la secretaria-interventora que expone lo siguiente:

Aurreko batzorde informatzailean esan bezala, INDENORT PV, S.L. baltzua Ihurren dagoen kirol-guneko aldagelen exekuzio, padel pisten exekuzio eta hauen estaldurari dagokion proiektu teknikoaren lehenengo hiru faseen esleipenduna da.

Tal y como se informó en la pasada comisión informativa, INDENORT PV, S.L. es la adjudicataria de las tres primeras fases de proyecto de ejecución de vestuarios, pistas de padel y cubrición de las pistas del complejo deportivo de Ihurre.

Azaldu zen bezala, inbertsio honek Gipuzkoako Foru Aldundiak aitortutako diru-laguntza bat dakar berarekin, 2018. urtean 130.000,00 euroren ordainketa aurreikusten delarik.

Tal y como se explicó, esta inversión lleva aparejada una subvención por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que ha resuelto abonar al Ayuntamiento en 2018 un importe de 130.000 euros.

Ordainketa egin ahal izateko beharrezko baldintza da 130.000,00 euroko exekuzioa zuritzea 2018 ko abenduaren 31 baino lehen.

Para que el abono se haga efectivo es condición indispensable la justificación de la ejecución de la obra por un importe de 130.000,00 euros, antes del 31 de diciembre de 2018.

Aldundiarekin sinatutako hitzarmena eta

Ocurre que tanto la firma del convenio

Indenort baltzuarekin sinatutako kontratua 2018ko azaroaren 21ekoak dira, ezinezkoa izanik abenduaren 31rako 130.0000,00 euroren balioko exekuzioa gauzatua egotea.

Hori dela eta, eta emandako diru-laguntza ez galtzeko, Udalak obra zuzendaritzari konturako obra ziurtagiri baten igorpena eskatu zion, zeina aipatu zenbatekoa gainditzen duen, eta Indenort enpresari 130.000,00 euroko faktura baten igorpena, betebehar hori bermatuko duen banku abal batekin batera.

Indenort baltzuak, fakturarekin batera, dagokion espedientean dagoen banku abala aurkezten du, batzorde informatzailea ospatu eta beranduago.

Helburua, abenduak 31 baino lehen Gipuzkoako Foru Aldundiari faktura, bermea eta obra zuzendaritzaren ziurtagiria aurkeztea izango litzateke, 130.000,00 euroko diru-laguntza ez galtzeko.

Ondorioz eta aurrean esandakoa ikusirik, Udalbatzaren eskuetan geratzen da batzorde informatzailetik pasatu ez den faktura hau Batzar honetan sartzea eta hala badagokio, onartzea.

Gaia bozkatzen da eta faktura gai zerrendan sartzearen alde agertzen da udal-kideen gehiengoa, BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin eta O.H.E. taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

suscrito con Diputación como la firma del contrato con Indenort se llevaron a cabo el 21 de noviembre de 2018, por lo que resulta imposible la ejecución efectiva de la obra a 31 de diciembre por un importe de 130.000,00 euros.

Por ese motivo y al objeto de no perder la subvención concedida, el Ayuntamiento solicitó de la dirección de obra una certificación de obra a cuenta, certificación que supera el importe precitado y a la empresa Indenort la emisión de una factura por los 130.000,00 euros, acompañada de un aval bancario por ese importe, que garantice el cumplimiento a futuro de esa obligación.

Indenort presenta junto a la factura, un aval bancario que obra en su correspondiente expediente, con posterioridad a la celebración de la comisión informativa.

El objeto de todo esto es la remisión tanto de la factura, del aval bancario como de la certificación de obra expedida por la dirección de obra, con el fin de no perder los 130.000, 00 euros de subvención.

Por lo tanto, y visto lo expuesto anteriormente, se somete a la decisión del Ayuntamiento Pleno la posibilidad de incluir la aprobación de esta factura que no ha sido informada previamente en comisión informativa y en su caso proceder a la aprobación de la misma.

Se procede a la votación y se acuerda por mayoría absoluta, con el voto en contra del concejal del grupo BILDU y la abstención del concejal del grupo O.H.E. incluirla en el orden del día para su aprobación.

Ondoren, faktura onarpenaren inguruko bozka egiten da, onartzen delarik BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin eta O.H.E. taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

BILDU taldeko zinegotziak bere bozkaren zentzua azaltzen du honako aipamen hauek eginez:

- Faktura ez da batzorde informatzailetik pasa.
- Ez zaio iruditzen gauza garbia denik.

Alkateak erantzuten dio faktura ez zela batzorde informatzailetik pasatu baina gaia bertan azaldu egin zela.

**Plantilla organiko eta lanpostu zerrendaren behin-behineko onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean udalkideei azaldu zitzaien.

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 90.1 artikuluan, 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen 6/1989 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2019 urterako Olaberriko Udaletxeko pertsonalaren plantila eta lanpostuen zerrenda aurkezten zaizkio Udalbatzari.

Gaia behar den bezala aztertu ondoren, honako hau erabakitzen da aho-batez:

<u>LEHENA:</u> 2019 urterako Olaberriko Udaletxeko pertsonalaren plantilla eta

A continuación, se vota la aprobación de la factura, quedando aprobada la misma con el voto en contra del concejal del grupo BILDU y la abstención del concejal del grupo O.H.E.

El concejal del grupo BILDU expone lo siguiente para explicar el sentido de su voto:

- La factura no ha pasado por la comisión informativa.
- No le parece que sea del todo limpio.

El Alcalde responde que la factura no se llevó a la comisión informativa pero el tema si se expuso en la misma.

**Aprobación inicial de la plantilla orgánica y relación de puestos de trabajo.**

Se informó a los corporativos en la pasada comisión informativa.

De conformidad con el art. 90.1 de la Ley de Bases de Régimen Local, el art. 127 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, y el art. 16 de la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, se presenta al Pleno la plantilla de personal y la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Olaberria para el ejercicio 2019.

Una vez estudiado suficientemente el tema, se acuerda por unanimidad lo siguiente:

<u>PRIMERO</u>: Aprobar inicialmente la plantilla de personal y la relación de puestos de

lanpostuen zerrendari hasierako onarpena ematea.

BIGARRENA: Jendaurrean jartzen da espedientea, iragarki hau argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epean.

Epe hori igarota alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin betikotzat hartuko da.

**2019. urterako Udaletxeko langileen lan-egutegiaren onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean udalkideei azaldu zitzaien.

Gaia bozkatzen da, proposamena onartuta gelditzen delarik O.H.E. taldeko zinegotziaren aurkako bozkarekin eta BILDU taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

O.H.E.ko zinegotziak bere kontrako bozkaren zergatia, Udaletxea arratsaldetan irekita ez dagoelako dela dio.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 13:20-ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du**

trabajo del Ayuntamiento de Olaberria para el ejercicio 2019.

SEGUNDO: El expediente se expone al público por plazo de quince días hábiles, contados desde la publicación de este anuncio.

Transcurrido dicho plazo sin que se presenten alegaciones o reclamaciones, el acuerdo se considerará definitivamente aprobado.

**Aprobación del calendario laboral 2019 para el personal del Ayuntamiento**

Se informó a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se procede a la votación, quedando aprobada la propuesta con el voto en contra del concejal del grupo O.H.E. y la abstención del concejal del grupo BILDU.

El concejal del grupo O.H.E. alega que ha votado en contra porque el Ayuntamiento no está abierto a las tardes.

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 13 horas y 20 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**